



## Lege-baldintzak

---

Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da lehiaketan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, lehiaketatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Lehiaketara aurkeztutako partaidea ez den beste egile batek beste hizkuntza batean egindako bideo baten edo bideo horretan oinarritutako lan baten itzulpen hutsak diren bideoak ez dira onartuko. Nolanahi ere, bideoaren edukia lehiaketan onartutako hizkuntza batera itzultzen lagun dezakete hirugarrenek.

Bideoan musika erabiltzen bada, musika horren ustiapen-eskubideek lehiaketako partaidearenak behar dute izan osoki, legez eta eskusiboki. Partaidearen erantzukizuna da baldintza hori betetzea. Elhuyar baldintza hori ez betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunetatik libre gelditzen da.

## Egile-eskubideak

---

Lehiaketara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Horrenbestez, partaideek auzi horretatik kanpo utzi behar dute Elhuyar. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, Elhuyar ez da horren erantzule egingo. Lehiaketako partaideari dagokio Elhuyar ardura horretatik salbustea.

Lehiaketako partaideek Elhuyarri uzten diote aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea non sartzten diren bideoa erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez dibulgatu, erreproduzitu eta erakusteko eskubideak. Halaber, Elhuyarrek bideoa eraldatu egin dezake, muntaia laburragoak egiteko edo beste bideo batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez-esklusiboan egingo da, mundu osorako.

Bestalde, hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Bideoak atal honetan zerrendatu ez diren xedeetarako erabiltzeko, egilearen baimena behar da.

Ez dira onartuko hirugarrenen jabego intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituzten bideoak. Era berean, bideoek ez dute pertsona fisiko edo juridikoen jabegoa, osotasuna edo irudi ona kaltetu behar.



Aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, Elhuyarrek eskubidea du bideoak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez daude horretara behartuak.

Lehiaketa amaitu ondoren, erakundeak egoki deritzen bideoak eskuragarri egongo dira Elhuyar Zientzia Azokaren webgunean eta haren Youtubeko kanalean, antolatzaileek egoki deritzoten arte.

## Azken klausulak

---

Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea.

Oinarrietan jasotzen ez diren gaiei dagokienez, Elhuyarrek izango du erabakitzeko eskubidea.

Arazoa teknikoak direla eta ikus ezin daitezkeen bideoen erantzule ez dira antolatzaileak.

## Datu pertsonalen babesa

---

### **ZURE DATUEN ARDURADUN**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua) ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak Elhuyar Fundazioak tratatuko dituela.

### **TRATAMENDUAREN XEDEA**

Erregistroan emandako datu pertsonalak beharrezkoak dira interesdunak eskatutako zerbitzua berme guztiekin eman ahal izateko, eta xede hauekin erabiliko dira: Elhuyar taldearen ekitaldiei, produktuei eta proiektuei buruzko informazioa bidaltzea eta eskatutako zerbitzua hobetzeko edo zerbitzuarekin gorabeherarik izanez gero, beharrezkoa bada interesdunekin harremanetan jartzea.

### **ZENBAT DENBORA GORDEKO DIREN**

Emandako datu pertsonalak gordeko dira harik eta interesdunarekin harremanetan jartzeko beharrezkoak direla aurreikusi arte.



## **ERABILTZEKO LEGITIMAZIOA**

Harremanetarako datuak ematean interesdunak adierazten duen adostasuna da datuak tratatzeko lege-oinarria.

## **HARTZAILEAK**

Aurreikusitako xedeak betetzeko, datuak Elhuyar Fundazioari jakinarazi ahal izango zaizkie.

Europako Esparru Ekonomikotik kanpo, herrialde, eskualde edo sektore jakin batzuei baino ezingo zaizkie jakinarazi datuak: Europako Batzordeak babes-maila egokia eskaintzen dutela onartu eta haien inguruko erabaki bat hartu duenean; helmugan datuek izango duten babesaren inguruan bermeak eskaini dituztenean; eta salbuespenetako bat aplikatzen denean, zeintzuen bidez aukera baitago datuak babes-berme egokirik gabe transferitzeko, datuen titularraren interesekin edo interes orokorrekin lotutako beharragatik.

## **ESKUBIDEAK**

Pertsona orok du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen erabilera mugatzeko, aurka egiteko edo beste norabait eramateko. Horretarako, datuensegurtasuna@elhuyar.eus helbidera mezu bat bidali besterik ez da egin behar, baliatu nahi den eskubidea adierazi, eta NANaren kopia edo identifikatzeko balio duen beste dokumenturen baten kopia erantsi.

Halaber, adierazitako adostasuna une oro bertan behera uzteko eskubidea du. Baimena ukatzeak ez du inolako eraginik izango baimena ukatu aurretik egindako erabileraren zilegitasunean.

Eskubidea du erreklamazio bat jartzeko kontrol-agintariaren aurrean, baldin eta uste badu bere eskubideak urratu direla bere datu pertsonalen babesari dagokionez.